# GUATEMALA



## Transnazionalak, zein garapenen agenteak?

2010eko irailaren 30ean. 19:00etan.
La Bolsa eraikina (areto handia), Pilota 10, Bilbao

Universidad del País Vasco  Euskal Herriko Unibertsitatea

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

omal

PAZ CON DIGNIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo

### Hizlariak:

Rúben Herrera, Consejo de Pueblos de Occidente-ko ordezkaria

Martha Lidia Godínez, Sector de Mujeres-eko ordezkaria

### Moderatzailea:

Carlos Martín Beristain, Giza Eskubideetan doktore eta ikerlaria

1996. urtean Guatemalan sinatutako Bake Akordioekin, atea zabaldu zitzaion Estatu eredu berri bat eraikitzeko itxaropenari. Estatu berriak borroka egingo zuen herriak berak jasan izan dituen arazo historikoen kontra, hala nola, arrazismoa, lurraren eta ekoizpen baliabideen banaketa desberdina edota patriarkatua.

Bake Akordioak sinatu eta hamalau urte geroago, zabalduko zela zirudien ateak morroiloz itxirik dirau. Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) Giza Garapenaren indizeak adierazten duenari jarraiki, Guatemala Latinoamerikako herrien azkenaurreko postuan dago, hain zuzen ere, Haitiren aurretik. Gainera, kontinentean desberdintasun kopururik handienak dituen herrialdeetako bat da, eta biztanleria indigena eta emakumeak dira desberdintasun hori gehien pairatzen dutenak.

Halarik ere, Europar Batasuneko eragileek sostengatutako eta lagundutako Bake Akordioak horren agerikoa ez zen beste ate bat ezkutatzen zuen, are arriskutsuagoa zena Guatemalako pertsona eta herri zapalduentzat: iparraldeko herrietako nazioarteko enpresei behin betiko sarrera ahalbidetu zien atea.

Prozesu honi 1991. urtean ekin bazitzaion ere egiturazko doikuntza neurriak ezarriz, Bake Akordioak sinatzean, eszenatoki "baketu" bat ahalbidetu zen. Horren ondorioz, hainbat zerbitzu publiko pribatizatu ziren eta nazioarteko enpresak kokatu ziren. Herrialdean kokatu zirenean, eta 2004ko maiatzaren 24an AEBekin sinatutako Merkataritza Libreko Itunaren bitartez, bai eta, berrikiago, 2010eko maiatzaren 19an, Europar Batasunarekin sinatutako Elkarkidetza Akordioaren bitartez ere, iparraldeko Estatuek bermatu egin dute euren enpresentzako zein interesentzako onuragarri den lege markoa. Horretaz gainera, hegoaldeko herrien baliabide naturalak ustiatu eta espoliatzeko erraztasunak dituzte.

Atzerriko multinazionalak Guatemalan jarduten ibili diren sektore estrategiko nagusiak honako hauek izan dira: batetik, energetikoa, petrolioa ateraez eta instalazio hidroelektrikoak eraikiz, eta, bestetik, meatzaritza, ondorio ekologiko, sozial eta komunitarioekin, eta, giza eskubideei dagokienez, kaltegarriak oso. Giza Eskubideak urratzen direla egiaztatzeko 2009. urtean antolatutako nazioarteko misio batek antzeman zuen bezala, enpresa horiek pertsonengan eta komunitateengan dituzten ondorioak "bizirauteko duten eskubidea mehatxatzean gauzatzen da, izan ere, osasuna, ur garbia, etxebizitza, lurra eta bizimodua izateko eskubidea zaildu egiten dute".

Egoera horren aurrean, komunitate, erakunde eta gizarte mugimenduek lurraldea defendatzeko hainbat erresistentzia eta borroka prozesuren protagonista izan dira, informazio kanpainak eginez, salaketa publiko eta penalak eginez, kasuak Herrien Epaitegi Iraunkorrean aurkeztuz, kontsulta komunitarioak antolatuz Laneko Nazioarteko Batzordearen 169. hitzarmenaren babesean, beste ekintza askoren artean. Horien aurrean, kasu gehienetan, enpresen indarkeria eta kriminalizazioa izan da erantzun nagusia, hedabide pribatuen eta Guatemalako Estatuaren konplizitatearekin, izan ere, Guatemalako Estatuak, Estatu demokratikoz eta baketsuz mozorraturik, indarkeria eta kriminalizazio agertokia ahalbidetzen du, kontrol sozialaz baliatzeko eta zigorgabetasuna sustatzen duen sistema juridikoa babestuz.

Hala eta guztiz ere, agertoki konplexu horretan, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren ebazpen berri batek Goldcorp S.A. enpresari dagokion Marlin I meategia ixtea agindu du, izan ere, komunitate, erakunde eta gizarte mugimenduen aldarrikapenak aintzatetsi eta legitimotzat hartu ditu. Kasu honetan, justiziaren eta itxaropenaren atea zabaldu du.

Hegoa eta Paz con Dignidad erakundeetatik eztabaida sakona lantzen jarraitu nahi dugu, nazioarteko enpresek Hego Amerikan duten paperari buruz. Horretarako, "*Transnacionales, agentes ¿de qué desarrollo?*" ("*Transnazionalak, zein garapenen agenteak?*") mintegia aurkeztuko dugu. Bertan, emakumezkoen eta komunitate mugimenduetatik Guatemalan egon diren borroka horien protagonisten ahotsak hurbilarazi nahi ditugu. Ez dugu ikuspuntu maximalista eta teoriko hutsa erabiliko; errealitatetik eta benetako mundutik aztertuko dugu, uste dugulako utopiak benetakoak direla eta izan behar direla.

# GUATEMALA



## ¿Transnacionales, agentes... de qué desarrollo?

30 de septiembre de 2010. 19.00 h
Edificio la Bolsa (sala grande), C/ Pelota 10, Bilbao

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea
hegoa — Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional · Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua
omal
PAZ CON DIGNIDAD
Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila · Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza
Departamento de Empleo y Asuntos Sociales · Dirección de Cooperación al Desarrollo

**Ponentes:**

Rúben Herrera, Delegado del Consejo de Pueblos de Occidente

Martha Lidia Godínez, Delegada del Sector de Mujeres

**Modera:**

Carlos Martín Beristain, Doctor e investigador de DDHH

Con la firma de los Acuerdos de Paz en 1996 en Guatemala se abría la puerta de la esperanza para la construcción de un nuevo modelo de Estado que luchase contra los problemas históricos que ha venido sufriendo el país, como son el racismo, la distribución desigual de la tierra y de los medios de producción o el patriarcado.

Catorce años después de la firma de los Acuerdos de Paz esa puerta que parecía abrirse sigue con el cerrojo echado. El índice de Desarrollo Humano del PNUD coloca a Guatemala en el penúltimo lugar de los países de Latinoamérica, tan sólo por delante de Haití. Es además, uno de los países con mayores cifras de desigualdad del continente, siendo la población indígena y las mujeres quienes más sufren esta desigualdad.

Sin embargo la firma de los Acuerdos de Paz, apoyada y acompañada entre otros actores por la Unión Europea, escondía otra puerta mucho menos visible y más peligrosa para las personas y pueblos oprimidos de Guatemala: la puerta que permitió la entrada definitiva de las empresas transnacionales de los países del norte.

Si bien este proceso ya se había iniciado en el año 1991 con la implementación de medidas de ajuste estructural, la firma de los Acuerdos de Paz posibilitó un escenario "pacificado" que favoreció la privatización de ciertos servicios públicos y la entrada de empresas transnacionales. Una vez ya presentes en el país y a través de la firma del Tratado de Libre Comercio (TLC) con EE.UU el 28 de mayo de 2004 y más recientemente el Acuerdo de Asociación (AdA) con la Unión Europea, el 19 de mayo de 2010, los Estados del norte han asegurado un marco legal claramente beneficioso para sus empresas e intereses y facilitar la explotación y el expolio de los recursos naturales de los países del Sur.

Los principales sectores estratégicos en los que las multinacionales extranjeras han venido operando en Guatemala son el energético, mediante la extracción de petróleo y la instalación de complejos hidroeléctricos, y la minería, con impactos ecológicos, sociales, comunitarios y en términos de derechos humanos especialmente nocivos. Una Misión Internacional de Verificación de Violaciones de Derechos Humanos organizada en 2009 constataba que el impacto de estas empresas sobre las personas y comunidades en las que operan "se concreta en la amenaza a su derecho a la supervivencia al dificultarse el derecho al acceso a la salud, al agua limpia, a la vivienda, a la tierra y a su forma de vida" .

Ante esta situación las comunidades, organizaciones y movimientos sociales han protagonizado diferentes procesos de resistencia y lucha por la defensa de su territorio a través de campañas informativas, denuncias públicas y penales, la presentación de casos frente al Tribunal Permanente de los Pueblos (TPP), organización de consultas comunitarias bajo el amparo del Convenio 169 de la OIT, y otras acciones, obteniendo como respuesta en la mayoría de los casos violencia y criminalización por parte de las empresas con la complicidad de los medios de comunicación privados y del Estado de Guatemala, que bajo la fachada de estado democrático y de paz, propicia un escenario de violencia y criminalización que utiliza como herramienta de control social, junto con un sistema judicial que promueve la impunidad.

Sin embargo en este complicado escenario una reciente resolución de la Comisión Interamericana de Derechos Humanos ha decretado el cierre en el Departamento de San Marcos de la Mina Marlin I perteneciente a la empresa canadiense Goldcorp SA, reconociendo y legitimando las reivindicaciones de las comunidades, organizaciones y movimientos sociales. Abriendo en este caso la puerta de la justicia y la esperanza.

Desde Hegoa y Paz con Dignidad queremos seguir acompañando el profundo debate sobre el papel de las transnacionales en América Latina mediante el seminario "*Transnacionales, agentes ¿de qué desarrollo?*". En el mismo pretendemos acercar a nuestro entorno las voces que han protagonizado esas luchas en Guatemala desde el movimiento feminista y comunitario, no desde un punto de vista maximalista o meramente teórico, sino desde el análisis de la realidad y desde el mundo de lo posible, porque también creemos que las utopías son y deben ser posibles.